

Urola Kosta



'Inalanbrikak' haur antzerkiko aktoreak emanaldia eskaintzen. ARGAZKIA: N.G.

'Inalanbrikak' antzezlanarekin hasiko da Zarauzko kultur egitarau berria

HAURRENTZAKO IKUSKIZUNA ETZI ESKAINIKO DUTE

Vaiven produkzioak taldearen emanaldia ikusteko sarrerak 3 eurotan daude salgai Sanz Enean

AINARA LOZANO

ZARAUTZ. Pasa den irailean estreinakoz martxan jarritako Kultura Zarautz egitasmoarekin aurrera jarraitzeko asmoa azaldu du Zarauzko Udaleko Kultura sailak. Honela, hasi berri den urteko lehen lau hilabeteetan, urtarrila eta apirila bitartean, hilean bi emanaldi eskainiko ditu eta gehienak Lizardi

antzokian izango dira. Hilabete bakoitzerako aukeratutako saioetako bat haurrei zuzendutakoa izango da, familian ikustekoa, eta bestea, helduei eskainitakoa.

Zarauzko kultura arduradunen helburua herritarrengan horrelako saioetara joateko ohitura sortzea da. Horregatik, hilean behineko hitzordua mantentzeko lanean jarraituko dute, egitarau erakargarria prestatuz. Haurrek hilean behin, larunbat arratsalde batean 17.30ean izango dute emanaldiarekin gozatzeko aukera. Helduek aldiz, larunbat gau batean izango dute hitzordua, 22.00etan hasita.

Urtea hasteko, etzi eskainiko dute lehen ikuskizuna. Gaztetxoek *Inalanbrikak* antzerkia ikusteko aukera izango dute eta kasu honetan Zinema pilotalekuan (gaztelekuan) izango da emanaldia, 17.30ean hasi-

EMANALDIEN DATAK

- **Urtarrilak 9.** Vaiven produkzioak taldearen *Inalanbrikak* haur antzerkia ikusteko aukera izango da larunbat honetan, 17.30ean, Zinema pilotalekuan (gaztelekuan). Sarrerak eskuragarri daude Sanz Enean.
- **Urtarrilak 23.** Ruper Ordorika abeslariak *Haizea Garizumakoa* bere azken diskoa aurkeztuko du hilaren 23an, 22.00etan, Lizardi antzokian.
- **Otsailak 27.** Anari abeslariaren kontzertuarekin gozatzeko parada izango da otsailaren 27an, 22.00etan hasita, Lizardin.
- **Martxoak 27.** Alos Quartet taldeak emanaldia eskainiko du martxoaren 27an.
- **Apirilak 24.** Patxi Santamaria eta Inazio Tolosak *Oteiza testoak eta beste poemak* antzezlan aurkeztuko dute apirilaren 24ean.

ta. Nahiz eta haurrei zuzendutako ikuskizuna izan, antolatzaileen esanetan guraso edo aiton-amonak ere parte polit bat igaroko dute gaztelekura bertaratzen badira. Izan ere, etxeko guztien gozamenerako komedia musikatua da *Inalanbrikak*.

Vaiven produkzioak taldearen hiru emakumek osatu zuten Inalanbrikak izeneko musika taldea da protagonista. Egun amonak dira eta taldeko kide batek eskaini zuten lehen emanaldiko tirabira eta beldurak azaltzen dizkie bere ilobei. Halaber, adiskidetasuna eta musikaren bitartez traba guztiak gainditzea lortu zutela nabarmenduko dute antzezleek. Inaki Salvadorrek sortu du larunbateko emanaldirako musika. *Inalanbrikak* haur antzerkia ikusteko sarrera 3 eurokoa da eta Sanz Enea kultur etxean eskuratu daiteke.

RUPER ORDORIKA Kultur egitarauarekin jarraituz, hilaren 23an Ruper Ordorika abeslariak bere *Haizea Garizumakoa* azken diskoa aurkeztuko du, 22.00etan, Lizardin. Sarrerak dagoeneko 5 eurotan daude salgai Sanz Enean.

Otsailaren 27an Anari izango da Zarautzen kontzertua eskaintzen eta martxoaren 27an berriz, Alos Quartet taldea. Bestalde, Patxi Santamaria eta Inazio Tolosa aktoreek *Oteiza testoak eta beste poemak* antzezlan aurkeztuko dute datorren apirilaren 24ean.

Otsaila, martxo eta apirilean haurrentzako eskainiko diren saioak ez ditu zehaztu Kultura sailak baina antzerkia, txotxongiloak eta musika uztartuko dituztela aurreratu du.

ZARAUTZ ACOGE MAÑANA UNA CHARLA SOBRE LA IGUALDAD

La conferencia de Hitzez tendrá lugar a las 19.00 horas, en el hotel Zarautz

ZARAUTZ. La Asociación de Mujeres Rurales Hitzez de Urola Kosta ha organizado una charla sobre la igualdad para mañana. La conferencia *¿Qué es eso de la igualdad?* tendrá lugar a las 19.00 horas, en el salón del hotel Zarautz.

La educadora de igualdad Neus Albertos será la encargada de impartir la charla de mañana a la que Hitzez invita a todos los vecinos de la comarca. La charla se ofrecerá en castellano y estará abierta a todo el público. Al acto acudirán entre otros, la concejala de Igualdad de Zarautz, Mariana Aranburu y la directora de Igualdad de la Diputación, Juana Mari Astigarraga.

Hitzez surgió hace más de dos años para crear y dinamizar puntos de encuentro y diálogo para las mujeres baserritarras mediante conferencias, jornadas, talleres y grupos de apoyo. Ha organizado numerosas actividades y su objetivo primordial es cubrir una carencia y ofrecer un servicio importante y necesario: mejorar la salud de las mujeres rurales. Se trata de una de las únicas asociaciones con estas características en la Comunidad Autónoma Vasca. >A.L.

ZUMAIA > Inda Mendiren irteeran izena emateko azken eguna da gaur

Zumaia Inda Mendi elkarteak gogo handiarekin nahi du hasi urte berria eta horretarako 2010eko lehen irteera antolatu du igande honetarako. Bizkian hasiko dute aurtengo egitarau zabala. Lezamatik abiatuko dira partehartzaileak Ganguren mendian tontorra egin eta ibilbidea Artxandan amaitzeko. Bizilagunek irteeran parte hartzeko izena emateko azken eguna da gaur goiko estankotan. >A.L.

ZUMAIA > Gaur hasiko diren merkealdietan euskarazko kartelak erabiliko dituzte

Gaur hasiko dituzte Zumaia merkatariek merkealdiak eta horrekin batera, Udaleko Euskara Zerbitzuak kartelak eta euskarazko katalogo berria banatuko dizkie dendariei euren saltokietan erabil ditzaten. Kartelak Alai Auzategiko A3 paper-dendan dituzte eskuragarri herriko merkatariek eta Euskara Zerbitzuan eskatu daitezke euskarazko katalogo berriak. >A.L.

La primera mujer en atravesar el Atlántico ofrecerá una charla mañana

La primera mujer en atravesar en solitario y en regata el Atlántico, la deportista Ana Corbella, visitará mañana Zumaia para ofrecer una charla, a las 18.30 horas en Foronda. Este año ha salido de Francia y ha llegado a Brasil en solitario, en un barco de 6,50 metros. >A.L.

KILIKA
www.kilika.net

% 40 bitarteko MERKEALDIK

MUNICH CAMPER FOR KIDS BIKKEMBERGS

San Francisco, 29 - Zarautz - 943 01 21 92 - Boulevard, 11 - Donostia - 943 43 09 66